

KATRIN ITURRALDE IZUZKIZA

Zuzendaria

Donostian jaio zen 1975an. Musika ikasketa sakonak egin ditu bertako Kontserbatorioan, Pianoko, Solfeoko, Musikaren Teoriako, Transposizio eta Repentizazioko, Koru Zuzendaritzako (Ohorezko Aipamena), Harmoniako, Kontrapuntuko, Konposizio eta Instrumentazioko eta Musika Pedagogiako Goi mailako irakasle tituluak lortuaz. Erdi mailako Kantu irakasle titulua ere badauka.

Musikarekin erlazionaturiko ikastaro ugari ere egin ditu, koru munduarekin zerkusia dutenak ere bai, Hendrik D. Looock, Electo Silva, María Guinant, Matts Nilson, Johan Djuick, Lazlo Heltay, Leonardo García Alarcón... ospetsuak irakasle bezala edukiaz.

Bere sorreratik Oroith Txiki haur abesbatzan aritu zen, geroago helduen abesbatza honetara pasatuaz. 2000. urtean Oroith Abesbatzako eta Oroith Txikiko zuzendaritzak bere gain hartu zituen. Koru hauek zuzenduaz nazioarteko eta estatu mailako sari ugari eskuratu ditu, besteak beste: Tolosa, Spittal (Austria), Avilés (Asturias)... "Gipuzkoa Kamara" abesbatzan abestu zuen eta gaur egun, "Conductus Ensemble" aintzinako musika egiten duen abesbatzako kide ere bada.

Donostiako eta Bilboko Kontserbatorioetan eta Donostia, Errenteria eta Hernaniko Musika Eskoletan irakasle bezala aritu ondoren, gaur egun Andoaingo Musika Eskolako irakasle da.